

# Aniztasunaren konplexutasuna

| URKO APAOLAZA AVILA |

Udaletako hauteskunde emaitzen mapan duela lau urte baino aniztasun handiagoa ikus liteke Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan. Kolore aldaketak Gipuzkoari eta Nafarroari eragin die batez ere, baina zeintzuk izan dira horretarako gakoak?

EAJREN BOTEREA handitu egin da nabarmen udal hauteskundeotan. Nahikoa da duela lau urteko eta oraingo mapak elkarren ondoan jartzea horretaz jabetzeko. Seguruena udaletako aldaketa nabarmenena Gipuzkoan sumatuko da. 2011n Bilduk sekulako *sorpassoa* jo zuen lurralde horretan, ia bere aldeko monokromo bihurtzeraino. Koalizioak gehiengo absolutuz lortutako udal ugariak eta Aldundia ere bere esku geratu izanak Gipuzkoako politika irauli zuen zenbait arlotan. Orain ordea herri askotan –eta Aldundian– kolorez aldatuko da gobernu, eta EH Bilduk ezin izango du agintetik segi transformazio horrekin.

EAJk iraganean bere esku izan dituen hainbat herri berreskuratu ditu Gipuzkoan (Tolosa, Azkoitia, Ordizia...), baita ezker abertzalea

sendo egon ohi den beste zenbaitetan irabazi ere, kasu esanguratsuenan izan liteke Arrasate (25.000 biztanle). Bizkaian ere EH Bilduri ihes egin diote Gernikak, Lekeitiok, Sopelak... EAJk aldiz hegemonikoa izaten segitzen du lurralde horretako gehiengan. Antzera gertatu da Araban, baina neurri apalagoan: EAJk Aguirin, eta Aiara berreskuratu ditu eta EH Bilduk Laudion, esaterako, lehenengo indarra izaten jarraitzen du.

## Kudeaketaren irakasgaiak

EAJ eta EH Bilduren arteko azken urteetako lehian gol ederra sartu dute jeltzaleek oraingotan. Hala ere, koalizioak 300.000 bototik gora lortu ditu eta Gipuzkoan eta Nafarroan hauteski gehien dituen indarra da. Baina hori ez da



ARGAZKI PRESS

EH Bilduk udal boterea oso nabarmen murriztu du Gipuzkoan, baita neurri txikiagoan Bizkaian eta Araban ere. Aldiz, Nafarroan hainbat udalerrri garrantzitsuren gobernu lortzeko bidean da.

## UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK

ARGAZKI PRESS / ARITZ LOIOLA



**Sozialistek Bizkaian, Araban eta Nafarroan beherantz segitzen dute, baina Gipuzkoan mantendu egin dira eta udal askoren gobernagarritasunerako gilitza izan daitezke.**

ezeren kontsolagarri. Hasier Arraiz Sortuko presidentek oso kritiko hitz egin zuen hauteskunde gauean: “gauza asko gaizki” egin dituztela onartu zuen eta kudeaketan egin zuen azpimarra.

Kudeaketaz hitz egitean, badirudi Arraiz hondakinez ari dela gehienbat. Atez Atekoaren inguruan hainbat herritan sortutako kalapitak EH Bilduri kalte egin diola uste du askok. Plastikozko poltsak balkoietan, firma bilketa masiboak... Legazpin, esaterako, kanpaina izugarria egin zen hedabide batzuetatik sistema horren kontra, eta gauza bera Pasaian, Bergaran... Aldiz hasieratik hondakinen kudeaketa zentzuzkoaren aldeko mugimendu biziak eta autonomoak izan dituzten herrietan (Usurbil, Hernani, Oñati...) EH Bilduk eutsi egin dio. Irakasgai bat izan liteke hori.

### **Iruzur salaketek fakturarik ez**

Nolanahi ere, hauteskundeetako emaitzak ikusita, ematen du ustezko kudeaketa txar guztiak ez direla berdin zigortu, ezta auzitegietan amaitu dutenak ere. Bidegiren kasuan EAJko hainbat kide daude nahasirik AP-1 autobideko obretan aurkitutako iruzur zantzueta. Azken asteetan Gipuzkoako Aldundiak zuzenean seinالاتu zituen bi alkategai jeltzale: Donostiako Eneko Goia eta Lazkaoko Felix Urkola. Batak zein besteak emaitza onak lortu dituzte ordea eta boterean izango dira.

PPri ez bezala –udal askotan desagertu egin dira popularrak– ustelkeria salaketek ez diote fakturarik pasa EAJri. Epsilon eta Hiriko moduko auzietan bere kideak tartean dauden arren, adibidez, 2011ko boto kopurua erraz berdindu du Araban eta orotara zinegotzi gehiago lortu ditu.

**Hondakinen kudeaketa zentzuzkoaren aldeko mugimendu biziak eta autonomoak izan dituzten herrietan EH Bilduk eutsi egin dio. Irakasgai bat izan liteke hori**

### **PSE-EEK maldan behera segitzen du**

Gipuzkoan udaletan izandako emaitzek lortu dute sozialisten enegarren porrota nolabait mozorrotzea. Lurrealde horretan 6.000 boto gehiago atera dituzte eta lortu dute Lasarte-Orian gobernatzeko adinako indarra edukitzea, baita Pasaian irabaztea ere, hemen emaitza bikoiztu du PSE-EEK. Oarsoaldeko hainbat herriren kasua zehatzago aztertzeko modukoa izan liteke: azkeneko hauteskundeetan parte-hartze oso baxua izan zen eskualde horretan, baina oraingoan batez bestekoa baino askoz gehiago igo da eta aldaketa handiak izan dira mapa politikoan.

Baina Idoia Mendiaren alderdia ez dago etxafuegoak botatzeko. Bizkaian eta Araban milaka boto egin du behera. Garai batean Ezkerraldean erabat nagusitzen zen alderdiak gaur egun apenas mantentzen duen Portugalete kontrolpean, Hego Euskal Herriko bosgarren hiri handiengan, Barakaldon, EAJrekin teknikoki berdinduta geratu baita.

2011n Sestao galtzea mingarria izan zen sozialistentzat. Lau urte geroago alde handitu egin du EAJk, edo hobe esanda EAJko alkate Josu Bergarak. Gasteizen Marotok azkenaldian bezala (ikusitako koadroa), Sestao Bergarak behin baino gehiagotan jaurti ditu mezu arrazistak. Entzun diogu adibidez etorkinez eta ijitoez mintzatzerakoan esaten “kaka hori” ez dela herrian sartuko. Hori dela-eta auzitara eraman dutenean ordea, kanpoaldean txaloka izan ditu herritarrak. Emaitza: 8 zinegotzi izatetik 13 izatera igaro da.

### **Nafarroan aldaketak udaletan ere**

Nafarroan aldaketa ez da soilik Parlamentuan islatuko. Udalerri askotan UPN boteretik kentzeko aukerak sortu dira (Lizarrak, Tafalla...) eta hori eguneroko kudeaketan lagungarri izango du Uxue Barkosen balizko gobernuak. Bestalde, EH Bilduk 25 udalerritan lortu du gehiengo osoa eta Geroa Baik beste hirutan.

Nolanahi ere, bai Nafarroan eta baita beste lurraldeetan ere, akordioek jokalekuan neurtu beharko da orain hautestontzietan emandako indarra, ez soilik udalak osatzeko, baita zerbitzuen kudeaketan (ura, hondakinak, garraioa, hiltegiak, euskaltegiak, industrialdeak...) oinarritutakoak diren makina bat mankomunitate, sozietate publiko eta partzuergoren kontrola eta funtzionamendua bermatzeko ere. Eta hor giltzarri izan daitezke, Podemosen babesarekin edo gabe, hamaita herritan zinegotziak lortu dituzten plataformak. ■